



Euskal Sozialistak Udaltaldea

Usurbil

Grupo Municipal Socialistas Vascos



Usurbil

**USURBILGO UDALA
SARRERA**

Zenbakia 501
Eguna 2018 OTS. 13
Saila DAZKARI RA

SEXU-ERASOEN AURKAKO APP BAT SORTZEKO MOZIOA

Justifikazioa.

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak eta Emakundek argitaratu dituzten eta eskuragarri dauden datuen arabera eta behin betiko datuak itxi bitartean egiazta daitekeenez, nabarmen egin du gora sexu-erasoengatik salaketan eta arrazoi beragatik epailean esku geratu diren pertsonen kopuruak. 2017ko lehen bederatzita hilabeteetako datuak 2016ko aldi bereko datuekin alderatuz gero, igoera % 36,36ra iritsi dela ikusiko dugu. Hortaz, Euskadin bi egunean behin salatzen da sexu-eraso bat.

Horrek guztiak kezkatu egin behar gaitu, eta administrazio publikoek eta, oro har, gizarteak erantzun egin behar dute. Emakumeek jasaten dituzten erasoak geldiarazteko jardun beharra dago, eta horrek erabateko lehentasuna izan behar du guztiontzat, baita gure ekintza publikoaren barruko jardun nagusien xede ere. Ildo horretan, eremu guztietan jardun beharra dago, gure lurraldeko emakume eta nesken segurtasuna bermatu ahal izan dadin eta emakumeak eta neskak gure lurralde eta udalerrietako kaleetan askatasun osoz eta beldurrik sentitu gabe ibili ahal izan daitezen.

Duela gutxi, hainbat ekimen jarri dira abian Euskadiko herri batzuetan. Haien artean, azpimarragarria iruditu zaigu mugikorretarako app baten bidez teknologia berriak aplikatzeko aukera bat. Emakumeek indarkeria matxistari aurrea hartzeko neurri gisa penisatuta dago, baina lapurretegi aurrea hartzeko eta aisia-gaueetan neska nerabeen segurtasuna areagotzeko ere balio dezake. Izan ere, neska nerabeek mutilen segurtasun-maila bera izan behar dute kalean ibiltzen direnean.

Ezarri zenetik, ekimen horrek oso eragin positiboa izan du herritarrengan, eta EUDELera iritsi da, euskal udal guztietan aplikatu dadin.

Hori guztia dela eta, ahaleginak batzeko eta sexu-erasoei hobeto aurre egiteko, honako mozio hau aurkeztu dugu:

MOZIOA:

Usurbilgo Udalak konpromisoa hartzen du EUDELekin koordinatuta gure udalerrian sexu-erasoen aurkako aplikazioa (APP) ezartzeko, era horretan sexu-eraso oro denbora errealean salatu ahal izan dadin, eraginkortasun handiagoarekin eta bizkorrago jardun ahal izan dadin, eta, horri esker, horrelako delituak saihestu ahal izan daitezten.